



SORTZAILEAK: TIKTOK

SORTZAILEAK: TIKTOK

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei TikTok-en sortzen dituzten edukiei buruz galdetu diegu, zehazki. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkorrean eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkitzen dira 2021eko maiatzaren 3tik 8ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa TikToken sortzeko eta erabiltzeko dituzten ohiturei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 858 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

2. TIK TOK

Sare sozial honi dagokionez, inkestatuen % 40,1ak du TikTok-eko kontua.


1. Irudia – Baduzu TikTok-eko konturik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Eta kontua dutenen artean, % 70,3ren kontuak pribatuak dira.


2. Irudia – Zure kontua publikoa ala pribatua da?



Iturria: Ikusiker Applika +

TikToken, gehien egiten diren gauza nagusiak hiru dira: beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi (% 68,7k ia egunero edo maizago), plataforma erabili oro har (% 60,2k ia egunero edo maizago) eta atsegin dituzten edukietan bihotzari eman (%49,2k ia egunero edo maizago). Plataformarekin interakzioak, bihotzari emateaz gain, oso kasu gutxitan egiten dira: besteen edukietan ez du ezer idazten erantzuleen % 76,4k, bideorik ez du igotzen % 83,1ak eta zuzenekoak ez du egiten % 99,1ak.


3. Irudia – TikTokerako eduki eta erabiltzaileekin interakzioak izateko modu ezberdinak zein maiztasunarekin egiten diren



Iturria: Ikusiker Applika +

Edukiak sortzen dituztela adierazi duten 83 pertsonen artean, % 42,2k momentuan bururatu, sortu eta igotzen ditu; aldiz, beste % 36,1ek aurretiaz pentsatutako edukiak sortu eta igotzen ditu nagusiki. Bestelako aukerak oso jende gutxi hautatu ditu: galerian gordetako edukiak % 8,4ak igotzen ditu, lagunek edo bestelakoek pasatutako edukiak % 4,8ak, momentuan bizitzen ari dena edo gertatzen ari zaiona % 3,6ak eta beste erabiltzaile batzuen edukiak konpartitu ohi ditu beste % 3,6ak.


4. Irudia – Adierazi TikTokera igotzen dituzun edukiak nola sortzen dituzun NAGUSIKI



Iturria: Ikusiker Applika +

Eduki motari dagokionez, TikTok-en nolabaiteko edukiak sortzen dituzten pertsonen artean herena inguruk eduki barregarriak sortu eta igo ohi ditu, eta bostena inguruk (% 22,6k) koreografiak. % 15,1ek tendentzia diren bideoen bertsioak (biralak, “hashtag popular”...) igotzen ditu eta % 14,0k kantuen cover-ak. Egunerokoan pasatzen zaizkien gauzen bideoak eta challenge-ak izan dira gutxien hautatutako kategoriak (erantzuleen % 5,4k aukeratu ditu biak).


5. Irudia – Zeintzuk dira TikTokera igotzea gogokoen dituzun argazki, bideo eta edukiak? Bakarra aukeratu:



Iturria: Ikusiker Applika +

Edukiak sortzeko moduari dagokionez, sortzaileen erdiek baino gehiagok adierazten dute tendentzien arabera sortzen dituztela. Aldiz, beren sormen propioak igo ohi dituzte laurdena inguruk; eta bi eduki motak sortzen dituztenak % 19,2 dira.

6. Irudia – Ze eduki mota igotzen duzu TikTokera?




Iturria: Ikusiker Applika +

Edukiak sortzeko moduari dagokionez, sortzaileen erdiek baino gehiagok adierazten dute tendentzien arabera sortzen dituztela. Aldiz, beren sormen propioak igo ohi dituzte laurdena inguruk; eta bi eduki motak sortzen dituztenak % 19,2 dira.

Hizkuntzaren kasuan, hamarretik ia seik (%59,6) beti sortzen dituzte edukiak gaztelera, eta segidan, % 21,2 euskara eta gaztelera ez diren beste hizkuntza baten sortzen du. Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen duten erabiltzaileak %4 eskas osatzen dute.

7. Irudia – Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua du euskarak TikTokerako sortzen dituzun edukietan??



Iturria: IKUSIKER Applika +

Nola aipatu txosten hau:

NOR Ikerketa Taldea (2021). "Sortzailea: TikTok". Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 24. Txostena. 2021eko maiatza. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://www.ikusiker.eus>